

ESPAINIA NAZIONALA: DIKTADURA ETA KONTRAIRAULTZA

Hasieran: Fronte Popularra / Errepublikari erori arazteko helburua

Gero: Sistema demokratiko eta liberal guztiaren kontra (falangista eta karlisten eraginez)

- a) Lurraldeak okupatu ahala: gerra egoera eta buruzagi militarrek gobernadore bihurtu: hauek koordinatzeko: Junta de Defensa Nacional Burgosen (Cabanelas/Mola)
- Jazarpen prozesua eta hilketak: sistematiakoak
 - Politiko ezkertiarak, sindikalistak, militar errepublikazaleak
 - Erretaguardia ziurtatzeko
 - Lurralde okupatuak gobernatzeko:
 - Zegoen legedi soziala eta laborala deuseztatu (Nekazaritzaren Erreforma...)
 - Alderdiak eta sindikatuak debekatu:
 - Onartuak: Falange, Comución Tradicionalista
 - Toleratuak: CEDA, talde monarkikoak
 - Legedi laizista suntsitu:
 - Hezkuntzan, kulturen (arau dogmatikoak, demokraziaren kontrakoak)
 - Elizaren laguntza: gerra = gurutzada
- b) Botere kontzentrazioa Francoren eskutan (Toledoko alkazarra hartu ondorengo prestigioa); Sanjurjo hilik, Jose Antonio (XI) ere bai.
- 1936-IX-30: agintari bakarra: gobernuburu eta ejertzitoaren "Generalísimo"
 - 1937-IV- Alderdi bakarraren estatu ereduak ezarri: Dekretuz FET y de las JONS (Falange eta Tradizionalistak):
 - Beste onartutako taldeak bertan sartu ahal dira
 - Franco buru: alderdi bakarrarena eta estatuarena (Mola hil 1937-VI)
 - 1938-I- Francok gobernuak eratu Burgosen (gero Salamanca)
 - Izaera faxista sendoa: Franco "Caudillo"
 - Ministro militarrek eta eskuinakoak
 - Legedia:
 - Prentsa eta komunikabideen kontrol ideologikoa
 - Fuero del Trabajo (III): grebak, sindikatuak eta lan gatazkak debekatuta
 - Elizaren aldeko legeak
 - Ley de Responsabilidades Políticas (1939-II): errepresiorako (Ejertzitoko eta Falangeko kideez eratutako tribunalak)